

«1848ko otsailaren 24aren urteurrenako bazkaria», 1854 otsailak 24, Esanak eta Eginak, II, Exilioan.

“Otsailekoak bezala, (biharko iraultzak) baieztatu dezala gizonaren eskubidea, baina aldarrika dezala emakumearen eskubidea eta ezarri dezala haurraren eskubidea; alegia, haren berdintasuna eta honen hezkuntza.”

«Malenkonia», Soaldiak, 3, liburukia, 2.

Nora doaz iririk egiten ez duten haur horiek denak? Sukarrak meheturik dauzkan izaki goibel maitagarriok? Bidean bakarrik ikusten ditugun zortzi urteko neskatok? Hamabost orduz lan egitera doaz errotarri baten pean; goizetik arrats, presondegia berdinean beti ere mugimendu berdina egitera doaz. Ilunpean inork ez dakien zer marruskatzen duen munstro higuinaria den makina ilun baten azpian makur, presondegiko errugabe, infernuko aingeru, lan egiten dute. Oro da brontzezko, oro da burdinazko. Inoiz ez dira gelditzen ahal, inoiz ez dira jolasten ahal.

(...)

Adin guria zerran estutzen duen lan gaitza, miseria sortuz mozkina ekoizten duena, haurra baliatzen duena tresna bat bezala! "Nora doa? Zer nahi du aitzinamenduak?" Gure galdea, gazteria loretan horrela hausteko, arima gizakiari kendu eta makinari emateko! Madarikatua izan bedi lan hau, amen gorroto! Madarikatua zabartu egiten duen bizioa bezala, madarikatua laidoa eta biraoa bezala! Jauna, madarikatua izan bedi lanaren beraren izenean, lan jator, garbi, emankor, eskuzabalaren izenean, Horrek egiten baitu herria libre eta gizona zoriotsu!"

Haurren lana eta hauen esplotazioaren aurrean aurkezten diren auzien duintasun poetikorako atea begi- bistakoa da, batzuentzat behintzat, lexikoan disonantzien erabilpen diskretuarekin eta metamorfismo aberats batekin arauak errespetatu daitezke, zentzuz urratzen badira ere. Hugoren ustetan, haurraren eskubideak hezkuntza eskubidearekin nahasten dira. Haurra etorkizuna da, eta ez zaio ez esplotatu eta ez tratatu txarrik eman behar. Haurraren eskubideak gizon eta emakumeen eginbeharrak dira.

Urrikalgarriak, Hirugarren zatia, 1. liburukia, 13. atala, «Gavroche ttipia».

“Ostiko bat emanda jaurti zuten bizitzara gurasoek.


Onez hartu zuen zafraldia.

Mutiko bihurria zen, zurbila, zalua, ernea, trufaria, itxura bizi eta maltzurkekoa. Harat-honat ibiltzen zen kantari, bertan txulora jolasten zen, errekan barrena ibiltzen zen, hegan egiten zuen poxi bat, baina katuen eta txorien antzera, alaitasunean, irri egiten zuen alproja esaten ziotenean, haserretu egiten zen lapurra esaten ziotenean. Ez zeukan teilaperik, ez ogirik, ez sukaldarik, ez maitasunik, baina bozkariotan bizi zen libre zelako.

Izaki dohakabeok gizon bihurtzen direlarik, arau sozialen errotak elkartu eta suntsitu egiten dituzte, baina haurrak diren bitartean, ttipiak izaki, ihes egiten diete. Zulorik meharrenak salbatzen ditu.”

Hugok bere eleberria idazteari utzi zion, lerro batzuk beherago 1847ko irailaren 25ean.

1854



Victor Hugo,
Charles Hugok
egina. Orsay
Museoa © RMN

HAURRAREN ESKUBIDEAK